


## Galderarik?

Okerrena hori da, agintari bat prentsaurreko batean gizaritari kontuak eskatzeko entzutea, eta kazetariak galderarik egin gabe aulkietatik zutitzen ikustea. Langileek bai ugari, eta ez denak zintzoak, baina beste inork ez dauka, antza, zalantzarik eta galderarik; eta zertan da proiektua, zer egin nahi da, zer ekarriko dio honek herriri, zertan aberastuko gara, zer ezagutuko dugu, zer jakingo, zertan lagunduko digu, hobeto ulertuko dugu bizi gaituen mundua, aurkituko digu argi izpirren bat iluntasun itzel honi, utziko diegu gure garaiaren testigantza



**Jira**  
Xabier Gantzarain

xume bat hurrengo belaunaldiei, utziko diegu egia ttipiren bat besterik ez bada ere?

Ez dago galderarik. Kazetariak ere nazka-nazka eginda daude, eta euren buruarentzat daukate galdera bakarra: nola kontatuko dut minutu batean kaka zahar hau guztia? Eta etorrita bezalaxe alde egiten dute, belarriak berotuta eta buruko minarekin. Bihar beste prentsaurreko bat, eta gero hauteskundeak, ez da berehala iritsiko abuztua.

Inork ez dauka galderarik. Nik, berriz, gero eta gehiago: noiz sartuko didate hilabete honetako soldata, iritsiko zait alokairua ordaintzeko, izango dut dirurik abuztuan kanpora joateko, gaur zer botatzen dute telebistan?

## Oporrak

Askorentzat ihauterietako bakanak dira egunotan. Elurretara joango dira ala etxean bertan geratuko, baratzak ere bere ukitu kuttunak merezi dituen sasoi paregabea delako. Hariari tiraka, ikusi duzue nola pitotu —Amikuzen- edo ertzotü —Zuberoan- den Frantziako lehendakaria ministroak noranahi abiatzen zaizkiolako atsedean bila: MAM Tuniziara, hango iraultza bete-betean zelarik eta Filon zurbila Egiptora, Mubaraketik handizki gonbidaturik. Errana zuten Errepublikan irréprochable bat eskatzen zuela. Argi denez leze bat bada helburuaren eta



**Bira**  
Itxaro Borda

errealitatearen artean. Ministro burugabeek orain presidentari partitzeko baimena galdatuko diote. New Yorkerako itzulia katiminian egin duen Sarkozyren gomendioen arabera, Frantziaren egon beharko dute.

Ez dünk hoberik... Martxoan Meatzalderatuko naiz. Atzo manifestatu zuten muskizarrek petroloren findegien kutsadura salatzen eta berria irakurtzean lurraldearen oinez ikertzeko gutzia piztu zitzaizdan. Adiskide bik deitu naut, hautsez, burdin urez, karbono monoxidoz eta zeru gris apalez bihotza bete dezadan. Lasai, gure artean ez dago interes gatazkarrik, are gutxiago han diktadore zakarrik. Soilik Dolores Ibaruriren itzala, Gallarta gainetan.

**Zuzendaria:**  
Martxelo Otamendi  
**Zuzendariordea:**  
Enekoitz Telleria  
**Edizio arduraduna:**  
Lurdes Hulzi  
**Argitaratzailea:**  
Euskal Editorea SM  
**Publizitatea:** Irigarri SM  
**Lege gordailua:**  
SS-0662/03  
**Batzorde parekidea:**  
071284059

**Egoitza nagusia:**  
Martin Ugalde kultur parkea.  
Gudariaren Etorbidea, z/g.  
20140 Andoain.  
**Telefona:**  
(0034) 943-30 40 30  
**Faxa:** (0034) 943-30 09 43  
**Webgunea:**  
www.berria.info  
**Posta elektronikoa:**  
berria@berria.info  
**Publizitatea:**  
publi@iragarri.net  
**Harpidetzatzailea:**  
(0034) 943-30 43 45

**Date:** 13/02/2011  
**Exemplaire:** 2.372  
**Editeur:** Euskal Editorea s.l.  
**Directeur de publication:**  
Martxelo Otamendi  
**Commission paritaire:**  
071284059  
**Delegation Labourd:**  
Lisses 3, 64100-Baiona.  
Tel.: (0033) 559256220.  
Fax: (0033) 559254303.  
E-mail: lapurdi@berria.info

**ORDEZKARITZAK**  
**Araba:** Bizenta Mogel, 6.  
Posta kodea: 01008  
Gasteiz. Telefona:  
945-15 04 52. Erredakzioko  
faxa: 945-14 83 07.  
Posta elektronikoa:  
araba@berria.info.  
**Bizkaia:** Uribitarte kalea, 18,  
3. C. Posta kodea: 48001  
Bilbo. Telefona:  
94-435 26 00. Erredakzioko  
faxa: 94-423 49 75.  
Posta elektronikoa:  
bizkaia@berria.info.  
**Lapurdi:** Lisses, 3, Posta  
kodea: 64100 Baiona.  
Telefona: 559-25 62 20.  
Faxa: 559-25 43 03.  
Posta elektronikoa:  
lapurdi@berria.info.  
**Nafarroa:** Iratxeko Monasterio,  
4, 5, 13. Posta kodea:  
31011 Iruñea. Telefona:  
948-36 66 22.  
Publizitatea: 948-36 66 23.  
Posta elektronikoa:  
nafarroa@berria.info.

# Terrorismo lege berria eta aro berria

Jon Mirena Landa

EHUko Zigor Zuzenbideko irakaslea

**G**abonekin batera, 2010eko abenduaren 23an hain zuzen ere, Zigor Kodearen (ZK) orotariko alda-

keta zabal eta sakona sartu zen indarrean (5/2010 Lege Organiko). Eraldatutako alorren artean, nola ez, terrorismoaren gainekoa ere badugu, irakurleak imajina dezakeenez beste behin ere jarduera horiek areago (posible ote?) zigortzeko asmoz.

Laburbildu behar izatekotan lau puntu izan badira adagai nagusiak: alegia, terrorismoaren beraren definizioa (1); terrorismoarekin elkarlanean jarduteak zer esan nahi duen (2); terrorismoa probokatzea (4); eta zigor berri bat gehitzea: zaintzapeko askatasuna deitutakoa. Azter ditzagun laurok.

Terrorismoaren definizioa. Lehenengo aldiz «erakunde» terrorist eta «talde» terrorist ezberdintzen dira (571 art. ZK), biak berdinduz gogortu arren. Erakundea egonkorragoa da, egitura eta hierarkiaz osaturik, lan-banaketa kiden artean egiten dela; horren aldean, talde terrorist izateko, nahikoa da bi pertsona biltzea terrorismo-delituak egiteko asmoz, nahiz eta egitura egonkorrik, lan-banaketarik eta hierarkiarik egon ez. Terrorismoaren definizioa ikaragarri handitu da, hortaz, nazioarteko terrorismoaren jardunbidera (zelula terrorist izenekoetara) egokituko, dio legegileak. Asmoen gainetik, terrorismoaren definizioa zabalago egin da, epaile-

ek azkenaldiotan egin ohi zuten interpretazio ezin zabalagoen ildotik. Talde terrorist batetik kidea izateko oinarri objektiboa (egitura, hierarkia, lan-banaketa, iraukor jarduteko uzia...) ez da frogatu behar, eta horrek «zulo beltz» handi bat sortzen du, gehiegikeriari bidea ireki ahal diona.

Elkarlanean aritzea. Orain arte terrorismoarekin jardutea zigortzen zen (576 art.), hala nola atentatuaren xedea izan daitezkeen leku zein pertsonen buruzko informazioa ematen zenean edo taldekideak ezkutitzean edo horiek leku batetik bestera eramatean. Jarduera argi horien alboan jurisprudenziaz bestelakoak ere sartzen joan da, azken bi hamarkadetan batez ere. Gogora dezagun, adibide gisa, Ezker Abertzalearen alderdiak ETAren bideo bat ezagutzera eman zuenean Auzitegi Gorenak kondenatu zuela, hain zuzen ere, terrorismoarekin elkarlanean aritzeagatik. Konstituzio Auzitegiak (1999ko uztailak 20), ordea, kalera atera zuen Mahai Nazionala, horregatik zigortzea gehiegizkoa zelakoan. Oraingo honetan, hortaz, legegileak beste urrats bat egin du; izan ere, «elkarlantz» ere hurrengo jarduerak joko baitira (576.3 art.): taldekide berrien trebakuntza, «kaptazioa» edota «doktrinamendua» taldekide berrien bila. Terrorismoaren definizioan bezalaxe, jurisprudentziaren joera hedatzailea —eta urrunagokoa ere— lege bihurtu dute.

Terrorismoa probokatzea. Aurkeko gutxi balitz bezala, agian, lege-aldaketarik beldurgarriena probokazio figura berria dugu. Ez gara delitu jakin batera probokatzeaz

ari (579.1 art.); ezta apologia delituari buruz ere (terrorismo ekin-tzak edota egileak goratzea, justifikatzea... 578 art.). Horren alboan, edozein terrorismo-delituen probokatze orokorra ere zigortzen da. Zer da hori, apologia ez dena? Nekez jakin daiteke zertarako erabili nahiko duten, baina adierazpen-ede ideologia-askatasunetan bete-betean sar daitezkeen beste xedapen penal bat dugu. Esaterako, presoaren aldeko «txalo zaparrada» eskatzearen kasua Auzitegi Nazionalak azkenik apologistatik at utzi zuen, zigortu barik. Hori izango al litzateke, orain, probokazio orokorra?

Zigor berria. Presoak kondenatu beteta kalera ateratzeko orduan polemika ugari izan dira; batez ere, 90eko hamarkadatik aurrera. Gogora dezagun, adibide lagarri gisa, *Parot* izeneko doktrina, zigor penalen atzera eragina izateko debekuaren aurka argi eta garbi jo arren oraindik ere indarrean dugu. Edota zigor betetze «efektibo eta oso-osokoa», terrorismoagatik presoentzat hirugarren gradu edo baldintzapeko askatasuna erabiliz bilakatu dituen, zigorra egiatan ia behin betiko presoaldi

bihurtuz. Hori gutxi ez denez gero, antza, orain terrorismo-delituekin batera, presoaldiaz gain, espetxetik atera eta zaintzapeko askatasuna ezartzen da (579.3 art.). Hau da, kalera irten arren, hainbat obligazio ezarri ahal izango zaizkio (leku batean bizi izateko dekekua, epailearen aurrera azaltzeko obligazioa...), bete ezean berriro ere espetxera bihurtuko dutenak. Teknikoki ez da «zigor» bat, baina praktikan oso kontrol sendo eta astuna ezartzeko aukera ematen du eta preso indandakoaren bizitza guztiz baldintza lezake.

Balorazioa. Delituzko jarduera gehiago eta zigor gehiago. Eta dena nazioarteko terrorismoa pertsegitzeko aitzakiaz, baina, zalantzarik gabe, barneko terrorismoa (ETArena, alegia) ere «sarean» eror dadin. Dena dela, ETAren terrorismoa bukatzen ari bada, ikusteko dago horren aurka borroka egiteko sortua izan den tresneria hau guztia zerlan geldituko den eta zein izango ote den haren etorkizuna.

Eta, etorkizuna asmatzen inoiz erraza ez denez gero, buka dezagun bi pronostiko posible aztertzen. Bata, ETA desagerturik terrorismoaren aurkako legeria (alderdien legea ere barne) desagertu beharrean, ordenamendu juridikoan behin betiko mantendu nahi izango dutena. Hipotesi hau, ezkorra, litekeena da, izan ere terrorismo-legeak funtzionalak baitira Estatuko delitugintza forma berriei aurre egiteko orduan: ETAren aurkako borrokaren «jaraunspena» bermerik gabeko tresna juridiko sorta izango litzateke, hortaz, beste esparruetan erabiltzeko prest. Bada, ordea, beste hipotesi bat, baikorra bezain aurreikusiezina: alegia, euskal gizariek behar duen adiskidetzeko balduean terrorismo-legeria salbuespenezkoa indargabetzen joatearena. Lege-aldaketak salbuespenezko neurriak ezereztu beharko litzuzke. Legea borrokarako erabili den bezala, zuzenbide penal sinboliko gisa, erabil dezagun hori ere bake-tresna gisa. Badakit amets egiten egon bangoela, baina hori ez dago debekaturik, ezta?

Legea borrokarako erabili den bezala, zuzenbide penal sinboliko gisa, erabil dezagun hori ere bake-tresna gisa